



ABALTZISKETA

Abaltzisketako Udalak, duela hainbat urte, herri txikien garapenarekin egindako lanari eusteko eta indartzeko bultzada eman behar dela ikusi du. Eta herri txikien garapena zabala bada ere bi atal hauek dira aztertu eta sakondu nahi direnak:

- Abaltzisketako auzoetan eta herrian hutsik dauden etxe eta baserrietan bizitza egotea, populazioari eusteko.
- Eta honen ondorioz, hain beharrezkoa den herri eskolari eusteko saiakera egitea.

Udalak bi lerro hauetan indarrak jarri nahi ditu eta guztion onurarako diren erabakiak hartu.

Horretarako ezinbestekoa zaigu, herriko gazte, herritik kanpora joandako gazte eta kanpoko zenbait gazte Abaltzisketan bizitzeko, edo bizitza egiteko asmoa edo desioa dutenak zenbat diren jakitea.

Eta eskatzen da, Abaltzisketan bizitzeko asmoa edo ilusioa duzuenok, beheko zatia moztu eta Udaleko buzoian uztea 2017ko urtarrilaren 13rako.

Izena eta abizenak:

Interesa dut Abaltzisketan bizitzeko:

- Ni bizi naizen auzoan.
- Hirigunean
- Beste auzo batean.